

Aurrekontu parte-hartzaileak Lemoan - 2016

Denon arteko eta denontzako aurrekontuak

- 1. Proposamenaren laburpena**
- 2. Lan ildoak**
- 3. Faseak**
- 4. Kronograma**

1. Proposamenaren laburpena

Bigarren legegintzaldi honetan ere aurrekontu partehartzaileen bidean sakontzen jarraituko dugu. Horretarako, azken urteotako dinamika arrakastatsuek mantentzea bete beharreko gutxienekoa izango da. Aurreko urteetako lanak argi erakutsi du aurrekontuena tramite hutsa baino sakonagoa den gaia dela, eta horretarako bideak emanda herritar askok hartzen duela parte prozesuan. Herritar gehienek dinamika hau begi onez ikustea lortu dugu, eta ehundaka izan dira prozesu ezberdinetan parte hartu dutenak ere.

Ohiko azalpen eta aurrelanketa honetaz aparte, iazko prozesuak emandako emaitzetatik abiatzen garelara izan behar dugu kontutan. Horregatik, iazko prozesutik burutu gabe geratu diren ekimenek lehentasuna izango dute aurtengo aurrekontuak diseinatzerakoan.

Alde honetatik, egindako lan “pedagogikoak” aurrera begirako oinarri sendoa ematen digula nabarmendu behar dugu. Dena den, argi daukagu aurrekontu partehartzaileak urtez urte hobetzen, aldatzen edo moldatzen joan behar diren prozesu dinamikoak izan behar direla.

Beraz, uste dugu partehartze zuzenaren norabidean beste pauso bat emateko momentua heldu dela, eta orain arte lortutako dinamikei eusteaz aparte, beste bide berri bat ere zabaldu behar dugula.

Bide berri horrekin herritarren erabakitzeko ahalmena edo boteretzea indartu nahi dugu, laburrean esanda; aholkulari edo gomendio emaile papera izatetik erabaki efektiboak hartzera pasatzea.

Badakigu rol aldaketa hori ez dugula egun batetik bestera lortuko, eta hasiera batean ezinezkoa izango dela modu orokorrean martxan jartzea. Horregatik, aurtengo zabalduko dugun bide berri hau proiektu konkretu batzuen inguruan martxan jartzea proposatzen dugu. Esperientzia mugatu bat burutzea denboran eta bere eragin eremuan.

Etapa berri honi ekiteko, Lemoan garatuko ditugun partehartze prozesu guztiak barnebiduko dituen irudi berri bat kaleratu eta promozionatuko dugu. Partehartzearekin eta demokrazia zuzenarekin erlazionaturako prozesu herritar guztietan erabiliko dugu irudi berri hori; aurrekontuen diseinua, auzolanak, hirigintza jardunaldiak, Agenda 21, kultur proiektu integrala,... Filosofia edo lan egiteko modu honetan emango ditugun pauso ezberdinak norabide berdinean doazela azpimarratuko du irudi berri honek.

2. Lan ildoak

Orain arteko dinamikaren jarraipena

Urte hauetan metatu dugun esperientziak erakutsi digu zenbait dinamika arrakastatsuak direla eta funtzionatzen dutela. Beraz, gure lehenbiziko lana dinamika hauek mantendu eta indartzea izango da. Hauek lirateke gure ustez funtzionatzen duten dinamikak;

- Auzoetako buzoiak
- Hautetsien bisitak auzoetara (Buzoiak jasotzerakoan)
- Teknologia berrien bidezko partehartzea (mugikorretarako aplikazioa, web orria eta sare sozialak)

Bide berria

Hasieran aipatu dugun bezala, partehartzean sakondu eta beste pauso bat emateko momentua iritsi dela ikusten dugu, eta oraingoz proposamen hau jartzen dugu mahai gainean norabide horretan aurrera egiteko:

- **Herriak hautatu**; Hirigintzarekin loturiko ekimena da hau. Udalak (herritarren esanak kontutan hartuz) hiru proiektu ezberdin aurkeztuko lituzke, eta aukeraketaren azken hitza herritarrek beraiek izango lukete kontsentsu edo bozketa bidez. Printzipioz, hirigintzako lan “handiak” izango lirateke. Aipatu beharra dago proposaturiko proiektu guztiak aurreko urteetako partehartze prozesuetan identifikatutako beharrianak direla. Hauek dira:
 - Elizondoko futbito zelaia konpontzea (lurra eta harmailak).
 - Estaziokoetaz aparte, beste komun publiko batzuk egitea (kokapenik egokienak aztertu beharko dira).
 - Herriko parkeren bat estaltzea.
 - Zubi berritik Tallerretarako paseo zatia konpontzea.

Udalak zehaztuko du erabiliko den diru kopurua zein den, eta aurkeztutako proiektuek muga ekonomiko hori errespetatuko dute.

Komunikazioa

Horrez gain, prozesua aurkeztu eta partehartzea sustatzeko komunikazio ekimen zehatzak ere martxan jarri beharko dira, lemoaztar guztiak jakin dezaten 2016ko aurrekontuak diseinatu behar ditugula eta denon eritziak entzun nahi ditugula. Horretarako Udalak eskura dauzkan bitarteko guztiak erabili beharko ditu kanpaina honetan:

- Atxubieta aldizkaria
- Udaleko webgunea / Partehartze webgunea
- Bandoak
- Megafonia
- Informazio panel elektrikoak
- Komunikabide ezberdinak

Kontutan izan beharko dugu komunikazio kanpaina hau LEMOATZEN irudi berriaren baitan kokatuko dugula, aurrerantzean herrian garatuko diren gainontzeko partehartze prozesu guztiak bezala.

Udal barneko lana

Aurrekontuak aurrera ateratzeko oinarria Udaletxe barruko kudeaketak ematen digu, eta alor honetan bi plano bereizi behar ditugu:

- Lan administratiboa
- Lan politikoa

3. Faseak

Parte-hartzeari dagokionez, hiru fasetan oinarritutako prozesua aurrakusten dugu: Aurkezpena, prozesuaren garapena eta Udal barruko erabakia.

3.1. Aurkezpena

Lehenengo eta behin, Udalak bere asmoa azaldu beharko du, herriaren aurrekontuak eta herritarren artean egindakoak aurrera eroatea, lehenengo alderdiei eta gero herritarrei. Horretarako hainbat bitarteko erabil litezke, baina garrantzitsua da prozesua ofizialki abiatzeko aurkezpen publiko bat egitea. Aurkezpen hau egiteko irailaren 16ko udalbatza erabiliko da.

Aurkezpen horretan prozesuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, iazko prozesuak eman zuenaren errebasotxo bat egitea ere komeni da.

Prozesuaren hasiera izango litzatekeen aurkezpenarako deialdia zabaltzeko hainbat bitarteko erabil litezke:

- Prentsa-oharra.
- Informazioa kalean: informazio-panelak, bando berezia...
- Udal informazio aldizkaria.

3.2. Prozesuaren garapena

Lau pausotan garatuko da partehartze prozesua bera;

1. Herrian zehar jarritako buzoietan eta mugikorreko aplikazioaren bidez herritarren ekarpenak jasotzeko epea. Irailaren 21etik urriaren 18ra.
2. Hautetsiak auzorik auzo buzoiak jaso eta herritarrekin batzartzeko. Urriaren 19tik 25era. Buzoiak iazko leku berdinetan ipiniko dira eta jasotzeko ordutegiak aurrerago zehaztuko zaizkie herritarrei.
3. Aurtengo berritasuna izango den herri bozketa urriaren 26tik azaroaren 1era bitartean burutuko da. Bertan, aurreko urteetan irtendako lau proiektu zehatz aurkeztuko zaizkie herritarrei eta horietako bat aukeratuko dute 2016an egin dadin.
4. Partehartze prozesua amaitzeko herri batzar zabala ospatuko da azaroaren 12an, 19:30etan jubilatuen gaineko aretoan. Batzar honetan Udalak herritarren ekarpenekin osatutako proposamena aurkeztuko du.

3.3. Udal barruko prozedura

Batzarren ondorioak kudeatzea da fase honetako zeregin nagusia. 3.2. ataleko helburuak betetzen badira informazio baliotsua izango dugu esku artean, hau da, Lemoako herritarrek zein nolako beharrak dituzten eta zein proiektu bultzatzen duten epe luze zein laburrera, garrantziaren arabera antolatuta.

Herriaren hitza zelan kudeatu izango da orain kontua. Herritarren eskariak dagozkien Udaletako Batzordeetara bideratzea izango litzateke onena, hauetan proposamena eztabaidatu, adostu (ahal bada, kontsentsuz, bestela gehiengoz) eta Udalbatzara eroan. Udalbatzean eztabaidatuko dena ez da alderdi jakin baten proposamena izango, herritarren aurrekontua baino.

Aurrekontuak onartzeko Udalbatza edo aurrekontuen aurkezpen publikoa bereziak izan behar dira. Ahalegin pedagogiko bat egin beharko dugu herritarrei aurrekontuak azaldu eta ulergarri egiteko. Honetan teknikarien laguntza beharko dugu eta powerpoint bat edo antzerako zeozer prestatu. Herriarenak izango diren aurrekontuok gizarteratu beharko ditugu. Honetarako, 3.1. atalean jasotako bideak kontuan hartu beharko genituzke.

4. Kronograma

Eskema honetan, faseak, lanak eta epeak zehazten dira:

Fasea	Lana	Epea
1.Aurkezpena	Plenoan prozedura abiatu	Irailak 16
	Komunikazio ekimenak; prentsa-oharra, kartelak...	Irailak 16-21
2.Prozesua	Ekarpenak jasotzea	Irailak 21- Urriak 18
	Auzoz auzoko batzarrak	Urriak 19-25
	Proiektua aukeratzeko bozketak	Urriak 26- Azaroak 1
	Herri Batzarra proposamena aurkezteko	Azaroak 12
3.Udal barruko prozedura	Batzarretako akten bilketa eta sintesia	Urte amaierarako
	Eztabaida udaleko Batzordeetan	
	Aurrekontuak onartzeko Plenoa	
	Erabakiaren komunikazioa	